Deskonexio/Konexio horiek egiteko, telefonoz deitu behar dio BEZEROak EUSKALTELeK, bezeroarentzako Arreta Zerbitzura (1717) edo horren ordez jartzen denera. Postaz ere egin dezake deskonexio-/konexio-eskaia, honako helbide honetan: "EUSKALTELeK SA", TARIFA GEHIGARRIA DESKONEKTATZEA/KONEKTATZEA, 6025 POSTA-KUTXATILA, 48080 PK, BILBO.

EUSKALTELeK BEZEROaren jakinarazpena jasotako egunetik hamar laneguneko epean deskonektatu/konektatu behar ditu aipatutako zerbitzu horiek.

10. KOMUNIKAZIOEN SEKRETUA

EUSKALTELeK konpromisoa hartzen du une bakoitzean eskura dituen eta behar dituen bitarteko teknikoak hartzeko, konstituzio onartutako komunikazioen sekretutasuna bermatu dezan, dagokionean, erabaki daitezkeen esku-hartze legalak eragin gabe. EUSKALTELeK ez du inolako erantzukizunik izango BEZEROak edo hirugarrenen telefoniko elkaritzeketa grabatzearen gainean, ezta horien erabilerari edo publikitateari eta, oro har, EUSKALTELeK edo Zerbitzuen operadoreari egotzirik ez dagoen ekitzita edo hutsgeitearen gainean ere, horiek komunikazioaren konfidentzialtasuna eta sekretutasuna errespetatzen ez badute ere.

11. ERREKLAMAZIOAK

BEZEROak sor daitezkeen edozein arazori buruzko erreklamazioak aurkez diezazkioke EUSKALTELeK (zerbitzuen funtzionamenduari eta kalitatearekin, prezioen aplikazioarekin, fakturazioarekin edo zerbitzua ematearekin lotutakoak edo beste edozein). Erreklamazio horiek gertaera horren berri izan eta hilabeteko epearen barruan aurkeztu behar dira.

Erreklamazioak egiteko, telefonoz deitu behar dio BEZEROak EUSKALTELeK, BEZEROarentzako Arreta Zerbitzura (1717) edo horren ordez jartzen denera. Posta arruntaren bidez ere egin dezake erreklamazioa, honako helbide honetan: "EUSKALTELeK SA", ERREKLAMAZIOAK, 6025 POSTA-KUTXATILA, 48080 P.K., BILBO. Halaber, www.EUSKALTELeK.com webgunean agertzen den formularioaren bidez egin dezake.

Erreklamazioa formulatu eta hilabeteko epean BEZEROak bere gustuko erantzunik jaso ez bada, eskubidea du, EUSKALTELeK lotutako kontuak badira, erreklamazio hori EAeko Kontsumoko Arbitraje Batzordeari aurkezteko. BEZEROak Batzorde horiek dietena onartzen ez bada, Telekomunikazio eta Informazio Gizartearan Estatu Idazkaritza (SETSI) edo Auzitegi Arruntetara jo dezake, EUSKALTELeK erantzuna eman eta hilabeteko epearen barruan edo erantzuteko duen epea bukatu ondoren.

12. KONTRATUA ETETEKO ARRAZIOAK

Kontratu honen iraupena mugagabea da, eta ondoren agertzen diren egoerengatik deuseztatuko da:

- EUSKALTELeK zerbitzu horiek emateko gaitzen duen titulua iraungi delako. Hori gertatu gero, BEZEROak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
- Aldeetako batek kontratu honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzen ez baditu, kontratua hault daiteke.
- BEZEROak hala eskatuta eta aurrez modu frogagarrian jakinarazita, 2 lanegun lehenago, gutxienez. Horretarako, helbide honetara idatzi behar du, posta arruntez: "EUSKALTELeK SA", ZERBITZUAN BAJA EMATEA, 24 FD POSTA-KUTXATILA, 48860 ZALLA (BIZKAIA).
- BEZEROA etxer aldatu bada eta EUSKALTELeK etxebizitza berrian zerbitzua emateko sarerik ez badu.
- Ustekabekoa gertatu delako.
- EUSKALTELeK berehala eten dezake kontratu hau baldin eta BEZEROak modu irregularrean erabiltzen badu Interneteko zerbitzua, legez kanpoko ekitzita edo beste erabiltzaile batzuei edo EUSKALTELeK sareari kalte egiten diena egiten baditu, bereziki Spam eta/edo MailBombing egiten bada.
- BEZEROak kontratu hau jaso eta 10 eguneko epean ez badiu bidali EUSKALTELeK hau behar bezala sinatuta, EUSKALTELeK kontratu hori eten dezake, eta, beraz, ez da indarrean egongo.

Kontratua amaitutakoan, BEZEROak eskubidea izango du ordaindutako berme-gordailua jasotzeko, itzul baldin badaiteke, inongo interesik gabe.

Edonola ere, nahiz eta kontratu hau amaitu edo ukatu, BEZEROak ordaindu egin behar ditu EUSKALTELeK hizaritutako ordainketa-betebeharrak; hau da, amaitu edo ukatu den kontratuan agertzen diren zerbitzuak deskonektatu arte, BEZEROak ordaindu egin behar ditu jaso dituen zerbitzuak.

BEZEROak zor dituen zenbatekoen ordaintzea atzeratzeagatik kontratu hau amaitzeaz eta horri buruz kontratuan ezartzen direnak aplikatzeaz gain, EUSKALTELeK judizialki erreklamatu ahal izango ditu BEZEROaren jardueraren

ondorioz sortutako kalteak, bai eta BEZEROak zordundutako zenbatekoak edo itzuli ez dituen ekipoak edo hondatuta itzultitakoak eta/edo estetika- eta/edo erabilera-kalteak dituztenak ere. Halaber, BEZEROak EUSKALTELEN jardueraren ondorioz sortutako kalteak erreklamatzeko aukera izango du, bai eta EUSKALTELEK bidegabe kobratu dituzten zenbatekoak ere.

BEZEROak zor zituen zerbitzuak ordaintzen atzeratzeagatik kontratua bertan behera utzi bada, eta gero zerbitzuan alta eman badu, BEZEROak berriz ordaindu behar dio EUSKALTELI une horretan indarrean dagoen alta-kuotaren zenbatekoa eta ordaintzeko duen zora, zor zuen zenbatekoa kobratzeko behar izan diren kudeaketa estrajudizialen edo judizialen ondorioz sortutako gastu administratiboak eta abokatuaren, prokuradorearen eta abarren gastuak barne. Era berean, EUSKALTELEK eskubidea du BEZEROari promozioak, eskaintzak edo deskontuak ez aplikatzeko, ordaintzetan atzeratu bada edo uneren batean zegozkion kuotak edo zerbitzu kontratatuak ordaindu ez baditu eta EUSKALTELEKO zerbitzuak berriz kontratatzen baditu.

13. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko araudiari jarraiki, EUSKALTELEK BEZEROari jakinarazten dio datu pertsonalen fitxategi bat dagoela (automatizatua eta ez-automatizatua), EUSKALTELEK berak sortua eta bere ardurapean dagoena. Kontratu-harremana merkaturatzeko eta haren mantentze-lanak eta kudeaketa egiteko erabiltzen da.

Fitxategi hori klausula honetan eta kontratu honen karatulan adierazitako helburuetarako erabiliko da.

BEZEROak baimena ematen du EUSKALTELEN produktu eta zerbitzu guztien merkataritza-sustapenerako bere datuak erabiltzeko.

Horrez gain, trebakuntzako edo informazio-ekintzak egiteko eta merkatu- eta iritzi-ikerketetan parte hartzeko bere datuak erabiltzeko baimena ematen du.

EUSKALTELEK BEZEROari jakinarazten dio noiznahi ezazta ditzakeela klausula honetan zein kontratuen karatulan zehaztutako baimenak.

Euskaltelek BEZEROari jakinarazten dio kontratu honen karatulan azaltzen diren datuak nahitaez bete behar direla –datu horiek gabe, Euskaltelek ezin du zerbitzua eskaini–, eta borondatez betetzeko azaltzen direnak betetzeko aukera duela.

EUSKALTELEK BEZEROaren kaudimena egiazta dezake (BEZEROarena nahiz haren izenean eta interesean dihardunaren), indarrean diren xedapenak errespetatuz jaso diren datu pertsonalen fitxategi automatizatuetara sartuta. Halaber, BEZEROak emandako datuen zehaztasuna ere ziurta dezake Euskaltelek.

EUSKALTELEK BEZEROari jakinarazten dio telekomunikazio-zerbitzuak jasotzeagatik zor dituen zenbatekoak horretarako aurreikusitako epean ordaindu eta indarrean den araudian ezarritako baldintzak bete ezean, diru-betebeharrak ez betetzeari buruzko fitxategietan sar daitezkeela ordaindu gabeko zenbatekoari buruzko datuak.

Halaber, EUSKALTELEK BEZEROari jakinarazten dio datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999ko Lege Organikoan ezarritakoaren eta horretarako aplikatu daitezkeen araudien arabera, noiznahi erabil dezakeela datu pertsonaletara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezetzatzeko, edo horiei aurka egiteko eskubidea. Horretarako, idatzi bat bidali behar du, postaz, EUSKALTELI, egindako eskaera adieraziz eta NANaren fotokopia erantsiz, helbide honetara: 24 posta-kutxa, 48860, Zalla (Bizkaia). Bestela, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura deitu (1717, edo horren ordez dagokiona), edo mezu elektronikoki bat bidali (j).

Euskaltelek bere gain hartzen du datu pertsonalak sekretupean gordetzeko eta zaintzeko konpromisoa; eta ez aldatzeko, ez galtzeko, ez tratatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko behar diren neurriak hartuko ditu, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen eta ez-automatizatuen segurtasun-neurriak aplikatu behar diren araudiari, indarrean dagoenari, jarraiki.

Jatorrizko linea eta linea konektatua identifikatzeko zerbitzuei buruzko eskubideak.

a) "Deitzen ari den linearen identifikazioa mugatzea dei batetik bestera". Ez baduzu zure zenbakia agertzea nahi deitzen diezun BEZEROen terminaletan, nahikoa da "067" markatzea (ez du kosturik) deitu nahi duzun telefono-zenbakiaren aurretik. Gainera, zure telefono-zenbakia behin bitiko ezkutatu nahi baduzu, kosturik gabe egin dezakezu sei hilean behin zerbitzu hori eskatuta bezeroarentzako arreta-zerbitzuan (1717 edo horren ordez jartzen dena).

Bestalde, EUSKALTELEK jakinarazten dizu deitzen ari den linearen identifikazioaren jatorria kentzen duela 112 zenbakiaren bitartez larrialdi-zerbitzuetara deitzean eta larrialdietarako zenbakien bitartez edo segurtasun publikoarekin edo defentsa nazionalarekin lotutako baimendutako bestelako zenbakien bitartez egindako deietan.

b) "Deitzen ari den linea helmugan beti identifikatzea". Deia jatorriko telefono-zenbakia terminalean ikustea nahi ez baduzu, kosturik gabe eska dezakezu zerbitzu hori sei hilean behin Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan (1717) edo horren ordez jartzen denean.

c) "Identifikaziorik gabeko deiak iragartzea". BEZEROak identifikaziorik gabeko deiak iragazi nahi baditu helmugan, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuko 1717 zenbakian (edo horren ordez jartzen dena) eska dezake zerbitzu hori.

d) "Konektatutako linearen identifikazioa". EUSKALTELEN ISDN zerbitzua duten BEZEROek konektatutako linea identifikatzeko eratzasuna dute lehenespenez. Edozein operadore-tako ISDN linea batetik datorren deia jasotzen duen BEZEROak nahi ez badu dei-egileak konektatutako linea bistaratzeko, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuko 1717 telefonoan (edo horren ordez jartzen dena) eska dezake.

e) "Deiak automatikoki desbideratzea". BEZEROak ez badu nahi inork deiak automatikoki bere terminalera desbideratzea, *02# markatu behar du zerbitzua aktibatzeko, eta #02# desaktibatzeko (ez du kosturik BEZEROarentzat).

BEZEROak kontratuen azalean jarritakoaren arabera baimena emandakoan, telefono-konsulten zerbitzuetan eta gidetan (paperezkoetan eta elektronikoen) BEZEROaren datuak sar daitezten, EUSKALTELEK Telekomunikazioen Merkaturaren Batzordeari emango dizkio BEZEROaren datuak, unean-unean indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.

Bestalde, BEZEROak eska diezaiolke EUSKALTELI bere datuak telefono-gidetatik edo telefono-konsulten zerbitzuetatik kentzeko; halaber, eska diezaiolke bere datu pertsonalak hirugarrenen zuzeneko salmentarako erabili ezin direla adierazteko edota datu pertsonalen akatsak zuzentzeko. Hori dela eta, BEZEROak lehen aipatutakoa ukatzeko, sartzeko, zuzentzeko eta bertan behera uzteko eskubideak gauza ditzake.

BEZEROak eskatzen badu bere datuak ez sartzeko konsulta telefonikoko zerbitzuetan eta gidetan (paperezkoetan eta elektronikoen), kontuan izan behar du "Deitzen ari den linea helmugan identifikatzea" zerbitzuaren bidez, deia jaso duenak bere telefono-zenbakia identifikatu dezakeela. Halaber, kontuan izan behar du deia jaso duenak bere telefono-zenbakia identifikatu dezakeela "Konektatutako linea identifikatzea" zerbitzuaren bidez.

Beraz, bere zenbakia inork identifikatzea nahi ez badu, jatorrizko linea eta linea konektatua identifikatzeko zerbitzuei buruzko atalari jarraiki erabili behar ditu bere eskubideak.

14. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Kontratu hau izenpetzeak ez dio ematen BEZEROari, inondik ere, Zerbitzuei edo horien edukiei lotutako jabetza intelektualako edo industrialeko eskubideak bereganatzeko ahalmenik. Araudi espezifikoak eta kontratu honek dioena dituzte gidari aipatu eskubideek. BEZEROA da berak edo bere agindupekoek egindako arau-hausteen

erantzule bakarria (EUSKALTELEN, beste BEZERO baten edo hirugarren baten eskubideei eragiten dietenak, honako hauek barne: copyrighta, markak, patenteak, informazio konfidentziala eta jabetza intelektualaren edo industria-jabetzaren beste edozein eskubide).

BEZEROA EUSKALTELEN ordainpeko zerbitzu batera iruzurrez sartzen dela hautematen badu EUSKALTELEK, EUSKALTELEK gauzatzeko eskubidea duen lege-ekintze gain, gutxienez 2.000 €-ko penalizazioa ezarri ahal izango dio EUSKALTELEK BEZEROari.

15. APLIKATU BEHARREKO ERREGIMEN JURIDIKOA

BEZEROak kontratu honetako telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratua egiten du EUSKALTELEkin, une bakoitzean indarrean dagoen Espainiako araudiari lotuta.

16. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratu hau sinatu ondoren kontratuan aldaketarik egiten bada, BEZEROari jakinarazi behar zaio, indarrean sartu baino hilabete lehenago gutxienez. Epe horretan, BEZEROA aldatzekin ados ez badago, EUSKALTELI jakinaraz diezaiolke kontratua bertan behera uzteko asmoa. Hilabeteko epe hori amaituta EUSKALTELEK jakinarazpenik jaso ez badu, BEZEROak aldatetak onartu dituela ondorioztatuko da.

17. ZERBITZUAN IRAUTEKO KONPROMISOAK

Hala badagokio, BEZEROak kontratu honen eranskinak sina ditzake zerbitzua denbora-tarte jakin batean kontratatua izateko, eta, hala, abantailak, deskontuak eta ekipamendua eskuratzeko sustapen-prezioan. Hala bada, eranskin horietan aurreikusitako eskubide eta betebeharrak bereziki eta ezar daitezke.

18. URRUNEKO KONTRATAZIOAN UKO EGITEKO ESKUBIDEA

BEZEROak urrunetik kontratatu badu (telefonoz, hirugarren egiaztaizale batek esku hartuz, edo elektronikoki, EUSKALTELEN webgunearen bidez), eskubidea izango du kontratazioari uko egiteko, kontratazioaren baieztatze-dokumentazioa jaso eta zappi egunen barruan. Eskubide hori gauzatzeko, 1717 bezeroarentzako arreta-zerbitzuko telefono-zenbakira (edo haren ordez) deitu behar du.

II.- INTERNETEN BERARIAZKO KLAUSULA

1. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Kontratu honek BEZEROak EUSKALTELEkin zerbitzu bera emateko sinatua duen beste edozein kontratu ordezen du.

2. SARTZEO GAKOAK

EUSKALTELEK BEZEROari berarentzat soilik diren identifikatzaileak eta sartzeko gakoak emango dizkio, eta konfidentzialki gorde beharko ditu. Zerbitzura sartzeko gakoek konfidentziasuna bermatzen du EUSKALTELEK.

BEZEROak beharrezko neurri guztiak hartu behar ditu gako horien konfidentziasuna gordetzeko. Horregatik, BEZEROak uste badu gakoek konfidentziasun-izaera galdu dutela, EUSKALTELI haiek aldatzeko eskatu behar du. Elkarren segidako sei hilabeteetan erabiltzen ez diren gakoak eteteko eskubidea du EUSKALTELEK. Kontratu indibidualak dagozkien gakoak ezingo dira erabili zerbitzua ekipo batean baino gehiagotan erabiltzeko.

3. INTERNETERA SARTZEO SOFTWAREA

EUSKALTELEK eskaintzen dizkien software-lizentzietan aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak bete behar dituzte BEZEROek.

Kontratu honetan ez da inola ere sartzeko EUSKALTELEN ikur bereizgarriak, patenteak edo erabilera-ereduak lagatzea edo haiek erabiltzeko baimena ematea, ezta EUSKALTELEK zerbitzuak emateko kontratatzen dituen hornitzaileenak ere (BEZEROaren mesederako). BEZEROak EUSKALTELEkin izan duen harremanaren bidez eskuratu duen jakintza ere, ikerketa eta garapenari buruzkoa batik bat, ezingo du erabili.

EUSKALTELEN eta hark BEZEROari zerbitzuak emateko kontratatzen dituen hornitzaileen pribilegioak eta ikur bereizgarriak erabiltzeko eskubideak akordio hau bukatzean amaituko dira.

4. POSTAKO ANTIBIRUSA

"Postako antibirusak" BEZEROak EUSKALTELEkin kontratatua duen kontuko sarrerako eta irteerako posta automatikoki berrikusten eta garbitzen du. EUSKALTELEK zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren programak instalatuko ditu eta egin beharrezko eguneratzeak egingo ditu. BEZEROak baimena ematen dio EUSKALTELI birusa aurkitutako artiboak eta programak deuseztatzeko, hura desinfectatzea lortzen ez badu.

EUSKALTELEK berrikusi egingo ditu BEZEROak posta elektronikoko kontuaren bidez bidali edo jaso dituen birus informatikoak edo antzeko elementuak eta BEZEROaren esku egongo den zerrenda eguneratzen daudenak. EUSKALTELEK ez ditu inolaz ere bere gain hartzen BEZEROaren bidegabeko jarduerengatik edo aurreko atalean azaltzen ez diren birusenengatik BEZEROak informazioa eta/edo fitxategiak galtzea, ordenagailuaren edo edozein ekiporen programa informatikoak eta/edo piezak kaltetzea eta antzeko hondamenak.

5. ZERBITZUENGATIKO ETA EDUKIENGATIKO ERANTZUKIZUNAK

BEZEROak Interneteko sarbide-mailak bortxatzeko, datuak oker erabiltzeko, eta jabetza intelektualak edota beste edozein legezko eskubidek babestutako datuen edo informazioen bikoizketak eta esportazioak egiteko gauzaten diren saiakera guztiak, bai eta EUSKALTELEK Internetera sartzeko eskaintzen dituen zerbitzuei ez dagozkien helburuak lortzeko egiten diren erabilera oker guztiak ere, eskubidea emango diote EUSKALTELI zerbitzu hori automatikoki indargabetzeko eta zerbitzu horretara sarbidea debekatzeko. Horrez gain, kasuaren arabera dagozkion erreklamazio ekonomikoak eta legezkoak egiteko eskubidea ere badu EUSKALTELEK.

EUSKALTELEK ez du, inolaz ere, BEZEROak edo hirugarren pertsona edo erakunde batzuek EUSKALTELEK Internetera sartzeko eskaintzen dituen zerbitzuen bidez ematen, erabiltzen edo eskaintzen dituzten produktuen eta zerbitzuen, hala nola, Euskaltelearen sarearen bidez hedatzen diren erantzukizunik izango, ez zeharka, ez subsidiarioki. Halaber, EUSKALTELEK ez du, inolaz ere, erantzukizunik izango –ez zeharka, ez subsidiarioki– BEZEROak edo hirugarren pertsona edo erakunde batzuek EUSKALTELEK Interneten ematen dituen zerbitzuen bidez edo EUSKALTELEKO sarearen bidez jakinarazten, hedatzen, saltzen edo erakusten dituzten eduki, informazio, ohartarazpen, iritzi edo aitopenezgatik.

BEZEROak espresuki onartzen du EUSKALTELEK ez duela erantzukizunik EUSKALTELEN sarean edo EUSKALTELEN sarean erabiltzen BEZEROA sar daitekeen sareetan dabilzan datuen, programen, informazioen edo iritzienez –edozein jatorri dutela ere– kalitate, zehaztasun, fidagarritasun, zuzentasun edo moralitatean. Goian aipatutako edukietara sartzearagatik eta horiek kopiaezagatik edo hedatzeagatik sar daitezkeen ondorio, kalte edo ekintzen erantzukizun osoa bere gain hartzen du BEZEROak. EUSKALTELEK ez da izango edozein BEZEROaren arau-haustek EUSKALTELEKO beste BEZERO baten, edo hirugarren baten, eskubideetan izan ditzakeen eraginean erantzule, eskubide hauek barne: copyrighta, markak, patenteak, informazio konfidentziala eta jabetza intelektualaren edo industria-jabetzaren beste edozein eskubide.

Aurreko guztiaz gain, EUSKALTELEK berehala eta aurrez jakinarazi gabe Internetera sartzeko zerbitzua eten dezake –bere irizpidearen arabera eta kalte-ordainik eragin gabe– eta, dagokionean, sarean dabilzan legez kanpoko edukiak ken ditzake, BEZEROA hirugarrenen eskubideak (intimitatea, ohorea, norbere irudia, komunikazioen sekretua, jabetza intelektualak eta industrialeak, datuen babesa, etab.) urratzen ari dela jakinez gero; hala nola, BEZEROak EUSKALTELEKO zerbitzaria erabiltzen badu (adibide gisa eta izaera murriztailerik gabe), (a) material, gai edo informazio

ilegala, lizuna, pornografikoa, neurriz kanpokoak, difamaziozkoak, engainagarria eta moralaren edo ordena publikoaren kontrakoak argitaratzeko, hedatzeko, jakinarazteko edo banatzeko, (b) zerbitzu horien bidez erabil daitezkeen edukietan, programetan edo sistematan kalteak edo aldaketak eragin ditzaketen birusak, appletak, ActiveX kontrolak, fitxategi akastunak, edo beste edozein software edo programa informatiko sartzeko edo jartzeko, (c) baimenik gabe web- orri pertsonalak edo beste erabiltzaileen posta elektronikoa iruzur bidez aldatzeko edo kontrolatzeko, (d) EUSKALTELEKO zerbitzari edo beste batzuei –EUSKALTELEKO BEZERO diren ala ez kontuan hartu gabe– mezu elektronikoki masiboak eta (e) edozein baimen edo berrito bidaltzeko (spam), (f) dagokionean eskaini daitezkeen zenbait zerbitzu (adibidez, berriketateguak, net meeting-ak, berri- taldeak, foroak etab.) dagokion funtzionamendu eta helburuarekiko bidegabe erabiltzeko edo behar den bezala ez erabiltzeko.

Euskaltelek berez ematen dituen zerbitzuetan eta Euskaltelek berak zuzenean sortutako edukien (copyright-ekin identifikatuta daude) erantzukizuna baino ez du izango. Erantzukizun hori salbuetsi egingo da halaberrezko arrazoiak daudenean edo BEZEROaren ekipoen konfigurazioa EUSKALTELEK eskaintzen dituen zerbitzuak behar bezala erabiltzeko egokia ez denean.

BEZEROaren ardura da sistema informatikoak birusak, troiatarrak, dialerak eta arrotzak sistematan sartzeko gainerako saiakuntzak eragotzeko behar diren segurtasun-neurrirez hornitzea. Euskaltelek ez du inolaz ere bere gain hartuko Internet bidez beste batzuk sistematan sartzeagatik gerta daitezkeen kalteen edo lortzen ez diren irabazien gasturik edo kalte-ordainik.

BEZEROak ez ditu erabili behar zerbitzuaren erraztasunak eta gaitasunak legeak debekatutako jarduerak egiteko edo proposatzeko. Halaber, BEZEROak bere gain hartzen du zerbitzua erabiltzeko baimena ematen diren pertsonen klausula hauek beteazazko erantzukizuna. Bestalde, BEZEROak zerbitzu bakoitza erabiltzeko eta beste sareetara sartzeko mugak aintzat hartzeko konpromisoa hartzen du (muga horiek EUSKALTELEK edo informazio-hornitzaileak jakinaraziko dizkio).

Interneten dabilzan edukietara sartzeagatik eta horiek erabiltzeagatik erantzukizuna kontratu honetako gainerako klausulek arautuko dute, horri buruz klausula honetan berariaz arautzen ez den gutziari dagokionez.

BEZEROak onartzen du Interneteko sarbide-zerbitzuen bidez erabil dezakeen informazioa jabetza intelektuala eta industrialaren eskubideen edo bestelako babespean egon daitekeela; horregatik, BEZEROaren eta jabetza intelektuala eta industrialaren eskubideak dituen titulararen arteko hitzamen partikulara dagonean izan ezik, BEZEROak informazio hori bere beharretarako bakarrik erabiltzeko konpromisoa hartzen du, bai eta eskura ditzakeen zerbitzuetan edo Internet zerbitzua erabiltzeagatik lortutako emaitzen utsiapen komertziala zuzenean edo zeharka ez egiteko konpromisoa ere. BEZEROak ez du EUSKALTELEN beraren edo beste batzuen jabetza intelektuala edo industrialaren eskubideen kontra joko duen ezer egingo Interneteko baliabideak erabiltzen dituen; eta, lehen aipatutako erabilaren ondorioz keaxaren bat –judiziala edo estrajudiziala– jasotzen badu, EUSKALTELEK horren erririk ez duela jakinarazi behar du.

Hala badagokio, BEZEROak ezin du bere web-orria erabili –EUSKALTELEN zerbitzarian dagoena– EUSKALTELI, inongo pertsonari, legeei, moralari edo ordena publikoari kontra egiten dion informazioa gordetzeko edo bidaltzeko, ez eta sexu, ideologia, erlijio edo arrazarengatik biolentzia sorrarazi edo pertsonak bazterratzen dituen informazioa gordetzeko edo bidaltzeko ere.

6. EKIPOAK

BEZEROak konpromisoa hartzen du sarera ez konektatzeko dagokien homologazio-ziurtagiriak, onarpen teknikoak edo Europako titulazio baliokiderik ez duten ekipoak edo sistemak (hardware eta/edo softwareak).

7. WiFi EKIPOAK DITUZTEN BEZEROEI APLIKATU BEHARREKO KLAUSULAK

WiFi erraztasuna aukerak BEZEROaren etxean haririk gabeko sarea sortzeko aukera ematen du; sare horren bidez, Interneteko sarbiderako kontratatutako banda zabalera BEZEROaren etxean dauden ordenagailuetara hedatzen da.

WiFiaren estaldura BEZEROaren etxeko konfigurazio zehatz baldintzatan duenez, EUSKALTELEK ez du bere gain hartzen inolako ardurarik, estaldura hori BEZEROaren etxeko puntu guztietara iristen ez bada.

EUSKALTELEK ez du erantzukizunik BEZEROarekiko kontratuzko harreman honetatik kanpo dagoen hirugarren batek, BEZEROaren haririk gabeko sarera WiFi teknologiarekin bidez iruzur egin ez dezakeen delako, BEZEROak Internetera sartzeko kontratatutako banda zabalera erabiltzeagatik edo BEZEROaren ordenagailuetako informazioa atzitzeagatik sarri daitezkeen kalte-galerengatik.

8. BACKUP ONLINE ZERBITZUARI APLIKATU BEHARREKO KLAUSULAK

BEZEROak EUSKALTELEN Backup Online zerbitzua kontratatu du, karatulan adierazitako modalitatean, Interneteko zerbitzuaren bitartez eta BEZEROak onartu dituen baldintza orokorren arabera. Baldintza hauetan berariaz ezartzen ez den gutziariko, kontratatutako INTERNETEKO ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRETAN eta BEZEROak kontratatutako Banda Zabaleko Interneteko sarbidearen modalitateko BALDINTZA OROKORRETAN ezarritako aplikatutako da.

Backup Online zerbitzuaren bitartez, BEZEROak bere sistema informatikoko datu informatiko (informazioa) guztien edo zati baten segurtasun-kopia egin dezake Internet bidez, EUSKALTELEN datuen zentroan dagoen urruneko biltegiatze-sistema batean. Kopia horiek eskuz edo programatuta egin daitezke. Zerbitzua behar bezala emateko, EUSKALTELEK software bat (aplikazioa) emango dio BEZEROari. Software hori BEZEROaren sistema informatikoan behar bezala instalatu gero, urruneko biltegiatze-sistematan segurtasun-kopiak egiteko funtzioak ematen. Honetarako, softwareak informazioa konprimitu eta enkriptatu egiten du, hala, informazioa edonon eta edonon eskura daiteke Interneteko konezioarekin eta behar den aplikazioa ekipoan instalatuta izanik. Halaber, software horren bidez, kopiak eskuz edo programatuta egin daitezke hainbat parametro kontuan izanik (aldizkakotasuna, data, ordua, etab.).

Automatikoki egin gero, fitxategi guztien kopiak modu berezgarrian eta inkrementalean egiten dira; hau da, azken eguneratetik aldatu diren fitxategien segurtasun-kopia bakarrik egiten da erantsitako informazio gehigarria sartzeko. Informazioa enkriptatuta eta konprimituta kopiatzen eta biltegiatzen da. BEZEROak edonoiz eskura dezake informazioa zuzenean, betiere, ekipoa Internetera konektatuta bada eta aplikazioa instalatuta bada. Alternatibak gisa, BEZEROak segurtasun-kopia bat CDan/DVDan 24 orduko epean etxera bidaltzeko eska dezake, EUSKALTELEK BEZEROaren Zerbitzuaren bitartez, anetarako ohiko ordutegian. Aplikazioaren bitartez, datuen zerbitzari biltegiatze eta lekua kudea daitezke. BEZEROak Backup Online zerbitzua zenbat ordenagailutan edo PCtan erabili nahi duen, hainbeste produktu kontratatu beharko ditu.

Zerbitzua emateko, BEZEROak EUSKALTELEN Banda Zabaleko Interneteko sarbidearen zerbitzua kontratatuta izan behar du, edozein modalitatetan.

Datu informatikoak BEZEROak bakarrik ezagutzen duen zifratze-gako bidez (segurtasun-esaldia) zifratuko dira. BEZEROak beharrezko neurri guztiak hartu behar ditu gako horien konfidentialtasuna gordetzeko. Horregatik, EUSKALTELEK ez da erantzule izango baimenik ez duten hirugarren pertsonen gakoak erabiltzen badituzte. Horrez gain, gako hori BEZEROak bakarrik ezagutzen duenez, BEZEROaren erantzukizuna da ez galtzea; izan ere, hori gertatu gero, ezingo da biltegiatutako informazioa eskuratu.

EUSKALTELEK eskaintzen dizkien software-lizentzietan aurreikusitako betebeharrak eta baldintzak bete behar dituzte BEZEROek. Kontratu honetan ez da inola ere sartzen EUSKALTELEN ikur berezgarriak, patenteak edo erabilera-ereduak lagatzea edo haiek erabiltzeko baimena ematea, ezta EUSKALTELEK zerbitzuak emateko kontratatzen dituen hornitzaileenak ere (BEZEROaren mesederako). BEZEROak EUSKALTELEkin izan duen harremanaren bidez eskuratu duen jakintza ere, ikerketa eta garapenari buruzkoak batik bat, ezingo du erabili. EUSKALTELEN eta hark BEZEROari zerbitzuak emateko kontratatzen dituen hornitzaileen pribilegioak eta ikur berezgarriak erabiltzeko eskubideak akordio hau bukatzean amaituko dira.

EUSKALTELEK eta BEZEROak konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DPBLO) eta hura garatzen duen araudiak (une bakoitzean indarrean denak) zehaztutako betebeharrak guztiak betetzeko. Bereziki, EUSKALTELEK eskaintako biltegiatze-zerbitzuak suposatzen duen datuen transferentzia kontuan hartuta, EUSKALTELEK, DPBLOaren 12. artikuluan ezarritako jarraituta, hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

BEZEROarenak diren datu pertsonalak kontratatutako zerbitzuak eskaintzeko soilik erabiliko ditu.

BEZEROak emandako argibideen arabera erabiliko ditu datuak, hau da, kontratu honetan aurreikusitako zerbitzuak eskaintzeko soilik. BEZEROaren jabetzako fitxategietako datu pertsonalak ez ditu aplikatuko edo erabiliko kontratu honen xedea ez den beste baterako eta ez dizkie beste pertsona batzuei ezagutaraziko edo emango, ezta haiek gordetzeko ere.

Eskatutako zerbitzuak emandakoan, BEZEROarenak diren fitxategietan oinarritutako datu pertsonalak dituen euskari informatikoa ezabatu edo itzuliko du EUSKALTELEK, eta ez du haren kopiarik gordeko, ez eta kanpoko pertsonaren bati, fisikoa edo juridikoa, datuen berri emango ere.

Halaber, DPBLOren 9. artikuluan zehaztutakoari jarraiki, EUSKALTELEK beharrezko neurri teknikoak eta antolamendu-neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du BEZEROaren jabetzako fitxategietako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, baita haiek ez aldatzeko, ez galtzeko edo baimenik gabe ez tratatu edo erabiltzeko konpromisoa ere, betiere, kontuan hartuta teknologiarekin egin gero, gordetako datuen izaera eta gizakiaren ekintzen nahiz ingurune fisikoaren edo naturalaren eraginaren ondorioz izan ditzaketen arrikuak.

Hori dela eta, EUSKALTELEK segurtasun-dokumetu bat du formalizatuta eta dokumentatuta, eta hor jasotzen dira, datuen izaera kontuan hartuta, ezarri behar diren neurri teknikoak eta antolakuntza-koak.

EUSKALTELEK neurri horiek har ditzan, BEZEROak konpromisoa hartzen du EUSKALTELI jakinarazteko oinarrikoak baino maila handiagoako segurtasun-neurriak hartzeko beharra, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

Ez da EUSKALTELEN erantzukizuna izango fitxategiak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erregistratzea, ez eta hirugarrenei lagatzea ere. EUSKALTELEK ez da BEZEROak datu pertsonalei buruzko betebeharrak ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik edo maila oroko zabarkeriagatik sortzen dituen kalteen erantzule izango.

Informazioa behar bezala gordeko dela eta BEZEROak eskura duela bermatzeko, BEZEROak baimena ematen dio EUSKALTELI informazioa EUSKALTELEK kudeatzen dituen edozein zerbitzariari gordetzeko. Kontratuak indarrean dirauen bitartean, kontratatutako lekua BEZEROarentzat eskuragarri egoteko konpromisoa hartzen du EUSKALTELEK.

Bestalde, BEZEROak ulertzen du urruneko partean biltegiatutako leku mugatu bat duela, eta haren erantzukizuna da kontratatutako lekua handitzea eskatzea, nahikoa ez bada.

Halaber, behar adinako ahalegina egiteko konpromisoa hartzen du EUSKALTELEK informazioa behar bezala gordetzen dela bermatzeko. Hala, informazioak BEZEROak erabiltzeko prest egon behar du beti kontratu hau indarrean den bitartean.

Hala ere, ezinbesteko kausek edo EUSKALTELEN esku ez dauden arrazioek informazio horren eskuragarritasuna oztapatzen badute, EUSKALTELEK ez du erantzukizunik izango.

EUSKALTELEK aldi baterako eten dezake informazioa bere zerbitzarietan gordetzeko edo BEZEROak informazio hori eskuratzeko aukera, segurtasun-arrazoiengatik edo EUSKALTELEN baliabide informatikoaren berregituratzeagatik (informazioa gordetzeko eta eskura jartzeko zerbitzuak hobetzeko).

Dena den, EUSKALTELEK ahalegin berezia egingo du eten horiek BEZEROarengan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.

EUSKALTELEK ez da eten horiek sor ditzaketen kalteen erantzule izango.

BEZEROak baimena ematen dio EUSKALTELI arrazoi teknikoengatik edo segurtasunekoengatik enkriptatutako datuen behar adina kopia egiteko, biltegiatze-sistematan gordetako informazioaren caching-a eta back up-a barme.

12. PC-RAKO INTERNETEKO SEGURTASUNAREN ZERBITZUARI APLIKATU BEHARREKO BALDINTZAK

Interneteko segurtasuna PCrako zerbitzua adierazitako modalitatean, karatulan agertzen denaren arabera, kontratatzen dituen BEZEROek aplikatu egin behar dituzte eta berariaz onartu zerbitzu horretara sartzean Pandak jakinarazitako zerbitzu horren baldintzak.

13. EUSKALTELEK POSTA-ZERBITZUARI APLIKATU BEHARREKO BALDINTZAK:

webgunearen bidez euskalnet.net posta elektronikoren eta on line komunikazioaren zerbitzuan alta ematen duten Interneteko BEZEROei Microsoftek jakinarazitako zerbitzu horren baldintzak aplikatuko zaizkie, eta BEZEROek espresuki onartu behar dituzte baldintza horiek, zerbitzu horretan alta ematen dutenean.

III.- AHOTS-TARIFA FINKOKO KLAUSULA ESPEZIFIKOAK (ETXKO BEZEROEI BAKARRIK APLIKATZEKOAK)

1. Baldintza hauen arabera, tarifa finkotzat hartuko da kontratatutako linea bakoitzeko aplikatu daitekeena. Hor sartzen dira deia ezartzeko kostua eta etxeetako BEZEROek Euskal Autonomia Erkidegoko zenbaki geografikoetara egindako deien kontsumoak, honako baldintza hauen arabera.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko zenbaki geografikoetara etxeetako BEZEROek –alegia, enpresa-xedeetarako erabiltzen ez diren lineek– egindako ahots-deietan bakarrik aplikatuko da tarifa finkoa. Hartara, gainerako deiak unean-unean dei bakoitzerako indarrean dauden tarifaren arabera fakturatu dira.

3. Dena den, kasu hauetan enpresa-xedeak daudela ulertuko da:

3.1. BEZEROak Euskal Autonomia Erkidegoko zenbaki geografikoetara egindako deien eguneko batezbestekoa zortzi ordu baino gehiago bada. Eguneko batezbestekoa hilerko kalkulatu da, tarifa finkoa aplikatzen den lehen egunetik hasita.

3.2. BEZEROak Euskal Autonomia Erkidegoko zenbaki geografikoetara egindako deien hilerko batezbestekoa 200 ordu baino gehiago bada. Hilerko batezbestekoa azken hiru hiletan kalkulatu da, tarifa finkoa aplikatzen den lehen egunetik hasita.

4. Tarifa finkoa ez zaio aplikatuko datu-transmisiarako zerbitzuen konezioari (adibidez, telefaxa eta Interneteko sarbidea). Zerbitzu horietara konektatzeko egiten diren deiei unean-unean zerbitzu horientzat indarrean dauden tarifak aplikatuko zaizkie.

5. Aurreko 2., 3. eta 4. ataletan zehaztutakoak betetzen ez bada, EUSKALTELEK baldintza berezi hauek ezartzeko eta unean-unean indarrean dauden tarifak (BEZEROak egiten dituen deien arabera) aplikatzeko eskubidea du. EUSKALTELEK baldintza hauek ezartzeko eskubidea errespetatu, haiek betetzen ez badira, idatziz jakinaraziko zaio BEZEROari, EUSKALTELEK horren berri duen unetik hasi eta hamar egunen buruan, beranduenera ere.

EUSKALTELEK baldintza berezi hauek BEZEROak bete ez dituelako ezartzen baditu, tarifa finkoaren aplikazioa amaitu egingo da, eta dei bakoitzarentzat indarrean dauden tarifak aplikatuko dira, EUSKALTELEK horren berri izan eta hurrengo hileraren zetik aurrera.

6. Dokumentu honen baldintza bereziak proportzionalki aplikatuko dira alta-egunetik aurrera.

Alta-eguna EUSKALTELEN sistematan tarifa finkoa aktibatzen den eguna izango da. Ezinbestekoa da BEZEROak dagokion Baldintza Berezi hauen alea sinatu eta EUSKALTELI bidaltzea. Bestela, EUSKALTELEK haiek ez onartzeko eskubidea du, eta, ondorioz, indargabetu egingo dira.

7. BEZEROak baldintza hauek bete ez dituelako haiek ezeztatzen badira, EUSKALTELEk berriro aplikatzeko eskubidea izango du BEZEROak hala eskatuz gero.

IV.- AHOTS-BONUEI BURUZKO KLAUSULAK (ETXEKO BEZEROEI BAKARRIK APLIKATZEKOAK)

1. Baldintza hauen arabera, bonuzat hartuko dira kontratatutako linea bakoitzeko aplika daitezkeenak. Hor sartzen dira deia ezartzeko kostua eta etxeetako BEZEROek eranskin honetan karatulan aukeratutako deien kontsumoak, ondoren zehazten diren baldintzen arabera.

2. Kontratutako bonua aplikatu beharreko denbora-tartean erabat kontsumitzen ez bada, EUSKALTELEk Bonuaren zenbateko osoa fakturatuko du.

3. Bonuaren iraupena amaitu edo erabat kontsumitu ondoren, BEZEROak egindako dei-mota bakoitzaren tarifak aplikatuko dira.

4. Bonu hauek etxeko BEZEROentzat bakarrik aplikatu behar dira, alegia, enpresa-xedeetarako erabiltzen ez diren lineetan.

V.- ENPRESAKO AHOTS-BONUEI BURUZKO KLAUSULAK (ENPRESEI BAKARRIK APLIKATZEKOAK)

1. Klausula espezifiko hauek enpresa-xedearekin kontratatutako linea edo lineak dituzten enpresako BEZEROEi bakarrik aplikatu behar zaizkie.

2. Bonuzat hartuko dira BEZEROak kontratatutako eta bankuko kontu berean fakturatzen diren lineei aplikatu beharrekoak. Deia ezartze-kostua eta BEZEROak eranskin honen azalean hautatutako dei-kontsumoak sartzen dira, baldintza eta kondizio hauen arabera.

3. Kontratutako bonua aplikatu beharreko denbora-tartean erabat kontsumitzen ez bada, EUSKALTELEk Bonuaren zenbateko osoa fakturatuko du.

4. Bonuaren iraupena amaitu edo erabat kontsumitu ondoren, BEZEROak egindako dei-mota bakoitzaren tarifak aplikatuko dira.